

ZEIN EMOZIO DA?

Jolas dezagun asmakizunetan!

Emozio, sentipen edo gorputz aldarate bat deskribatu beharko du gutako bakoitzak; horretarako, nahi badugu, proposatzen zaizkigun bukaerak eta oinak erabili genitzake. Ea asmatzen duten lagunek zer den...

<p>NAZKA</p> <p>Goragalea ematen digu alajaina!</p> <p>usaina / mingaina orbaina / arraina zaina / baina</p>	<p>INBIDIA</p> <p>Juxtu niri falta zait berak duen hori!</p> <p>berari / neri segi / gehiegi tori / kategori</p>	<p>AMORRUA</p> <p>Atzaparrak zorroztu ta egin orrua.</p> <p>barrua / arrua larrua / amarrua katxarrua / errua</p>
<p>LOTSA</p> <p>Burua sartu nahiko nuke lur azpira.</p> <p>begira / gorrira erretira /sikira desira / erdira</p>	<p>MAITEMINA</p> <p>Ezpainetan eman nahi nioke muxua.</p> <p>sua / kasua mezua / itsua konplexua / indartsua</p>	<p>KULPA</p> <p>Kontzientzia estutzen diguna bortizki.</p> <p>gaizki / noski aski / dakizki izpi / garesti</p>
<p>BELDURRA</p> <p>Ez du uzten aurrerantz ematen pausoa.</p> <p>marrazoa / erasoa arazoa / lazoa erosoa / osoa</p>	<p>POZA</p> <p>Mendi puntaren puntan irrintzia bota!</p> <p>saltoka / oilaloka topa / nago-ta txaloka / opa</p>	<p>ASPERDURA</p> <p>Denbora astun, geldo pasatzen ikusi.</p> <p>aharrausi / gutxi etsi / utzi igurtzi / hautsi</p>
<p>NAGIA</p> <p>Zeozer egin behar ta ezin arranka.</p> <p>botata / falta da-ta / galanta manta / tiraka</p>	<p>TRISTURA</p> <p>Negar egin behar da ateratzekotan.</p> <p>malkotan / halakotan askotan / asmotan ardotan / borrokan</p>	<p>JELOSKORTASUNA</p> <p>Nire maitea dago beste norbaiten zai.</p> <p>nahi / bai etsai / jai errai / gai</p>